

Rc2. Hezkuntzako gastu publikoa.

Hezkuntzarako zuzendutako gastu publikoaren ehunekoa

Hezkuntzarako zuzendutako gastu publikoaren ehunekoa, 2000 urterako Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuetatik, guztira 5.173.761 (Milaka eurotan), %27koa da, hau da, 1.396.908 (Milaka eurotan).⁽¹⁾

Oro har, ikastetxeek jasotzen dituzten diru-sarrerak jatorri publikoa dute, batez ere, Hezkuntza Sailak ematen dizkie; sare pribatuan, kuotak diru-sarrera guztien heren bat da (%31,6).

⁽²⁾ Adierazle honek, gainera, gastu osoaren ⁽³⁾ eta jarduera bakoitzeko irakaskuntza-gastuaren bilakaerari buruzko datuak ematen (89-99 urteak). Eta ikastetxeek jasotzen dituzten diru-sarreraren jatorria (99 urtea). Emandako datu guztiak bai sare Publikoari nola Pribatuari dagozkie.

Oro har, gastu osoa eta irakaskuntza-gastua milaka eurotan gorantz eta paraleloan doazela ikusi ahal dezakegu, eta hori sare Publikoan nola Pribatuan gertatzen da. Hala ere, urteko gehikuntzaren ehunekoa ez da erregularra eta 95 urtean, esaterako, sare pribatuan, gehikuntzarik ez dago.

Jarduera bakoitzeko gastuaren bilakaerari dagokionez, zerbitzu osagarrien gastua handiagoa dela sare pribatuan publikoan baino aipatu behar dugu, joera hori ez da 1999 urtean gertatzen, urte honetan berdintzeko joera baitago.

(1) Iturria: Ogasun eta Administrazio Publikoaren Saila. Eusko Jaurlaritza.

(2) Adierazle honen barruan ez da sartzen Gastuan administrazio-zerbitzu guztiei dagokiena ezta gastu pribatua edo familiena.

(3) GASTU OSOA:
 *Funtzionamenduko Ohizko Gastua:
 -Irakaskuntza-gastua:

-Jarduera Osagarrien Gastua
 -Zerbitzu Osagarrien Gastua

*Inbertsioa edo Kapital-gastua: lurrak, ondasun higiezinak eta ondasun higigarriak.

-Informazio gehiago jasotzeko, ikus EUSTATaren Metodologia eta Definizioak

-Datu guztiak EUSTATetik hartu ditugu (EUSTATEk ikastetxei pasatu ohi dien inkestatik).

Rc2.1 Taula



Ikastetxe publiko zein pribatuetan egiten duten gastu osoaren eta irakaskuntza-gastuaren bilakaera (milaka eurotan). 1989. urtetik 1999. Urtera bitartean.

Publikoa	1989	1990	1991	1993	1995	1997	1999
Gastu osoa	423.064	497.512	555.305	680.694	781.532	855.289	958.963
Irakaskuntza gastua	362.008	410.630	480.888	586.059	687.949	748.218	834.187

Hitzartua	1989	1990	1991	1993	1995	1997	1999
Gastu osoa	321.175	368.907	408.820	502.212	480.732	559.807	596.793
Irakaskuntza gastua	273.809	311.535	343.953	412.090	407.360	465.562	515.644

Rc2.1 Grafikoak

Ikastetxe publiko zein pribatuetan egiten duten gastu osoaren eta irakaskuntza-gastuaren bilakaera (milaka eurotan). 1989. urtetik 1999. urtera bitartean.



Definizioak:

- Gastu Osoa: ohizko gastuak (jarduerakoak) eta inbertsio-gastuak sartzen dira.
- Ohizko Gastuak (jarduerakoak) hiru atal hartzen ditu: Irakaskuntza-gastuak, Jarduera Osagarrienak eta Zerbitzu Osagarrienak.
- Inbertsioa edo Kapital-gastua: Lursailak, ondare higiezinak eta ondare higigarriak.
- Irakaskuntza-gatua:
- Langileen gastua: lantsaria, soldatak, kotizazioak..., baina irakasleenak bakarrik.
- Gastu Orokorrak: irakaskuntza-jardueraren gastuak (materiala eta ekipamendu didaktikoa), higiezinak gastuak (higiezinak, ekipamenduaren eta altzarien garbiketa eta konponketak), administrazio-gastuak (bulegoko materiala, dietak) eta beste gastu orokor batzuk sartzen dira.

Iturriak: EUSTAT. Datu hauek ikastetxeek ematen dituzte EUSTATEk bi urtean behin pasatzen duen inkesta baten bidez.

Rc2.2 Taula

Irakaskuntza-jardueren, jarduera osagarrien eta zerbitzu osagarrien jardueren araberako gastuaren bilakaera; ikastetxe publiko zein pribatuetan. 1989. urtetik 1999. urtera bitartean (Milaka erotan).

Rc2.2 Grafikoa

Irakaskuntza-jardueren, jarduera osagarrien eta zerbitzu osagarrien jardueren araberako gastuaren bilakaera; ikastetxe publiko zein pribatuetan. 1989. urtetik 1999. urtera bitartean (Milaka erotan).

Definizioak:


-Irakaskuntza-gastua: Langileen gastua eta Gastu Orokorrak.

-Jarduera Osagarrien Gastuak.: Izaera hezigarria duten arren irakaskuntzakoak hertsiki ez diren jarduerak garatzean sortzen diren gastu arrunta guztiak sartzen dira.

- Zerbitzu Osagarrien Gastuak. Honakoa sartzen da: .Ikastetxeko langile baina irakasle ez direnen Gastuak.

.Garraio-zerbitzuen eta ondareen kontsumoa, jantokiarena eta osagarri beste batzuen, direla kontratatuak edo ikastetxeak berak emandakoak.

	Balioa (mila Eurotan)						
	1989	1990	1991	1993	1995	1997	1999
Irak. Publikoa							
Irak. Gastua	362.008	410.630	480.888	586.059	687.949	748.218	834.187
Ekintza Osagarrien Gastua	4.261	4.219	4.730	1.611	5.079	5.848	6.515
Zerbitzu Osagarrien Gastua	13.781	16.071	17.513	23.067	29.504	33.999	40.430
Irak. Hitzartua							
Irakaskuntza Gastua	273.809	311.535	343.953	412.090	407.360	465.562	515.644
Elintza Osagarrien Gastua	2.302	2.879	3.438	4.099	4.375	5.277	6.148
Zerbitzu Osagarrien Gastua	24.840	28.482	33.080	38.609	37.251	39.108	41.873



Iturriak: EUSTAT. Ikastetxe publiko eta pribatuetan egindako inkesta.


Rc2.3 Taula

Ikastetxeek jarduerarako jasotzen duten diru-sarreraren jatorriari buruzko datuak. 1999. urtea.

GUZTIRA	PUBLIKOA		HITZARTUA	
	Mila €	%	Mila €	%
EJ Hezkuntza Sailaren Sub	743.127	83	337.114	62
Toki Administrazioaren Sub	52.655	6	4.177	1
Beste Sub Publiko batzuk	19.178	2	6.136	1
Sub Pribatuak	2.428	0	11.575	2
Kuotak	64.897	7	170.519	32
Beste sarrera batzuk	12.976	1	10.283	2

Rc2.3 Grafikoa

Ikastetxeek jarduerarako jasotzen duten diru-sarreraren jatorriari buruzko datuak. 1999. urtea.



OHARRA: Ikastetxeek dirulaguntzen, kuoten edo beste batzuen bidez jasotzen dituzte ohizko diru-sarrerak edo jarduerakoak. Kapitalaren diru-sarrerak ere jasotzen ditu.

Iturriak: EUSTAT. Irakaskuntza Publikoaren eta Irakaskuntza Pribatuaren Gastu eta Finantzaketari buruzko Estatistika.